**Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional**
**Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzua**
Santo Domingo 8 - 31001 Pamplona/Iruña
sfpeduca@navarra.es
Tel. 848 42 65 91

## Memoria justificativa.

### a) Informe – Propuesta.

El Departamento de Educación propone modificar el Decreto Foral 54/2008, de 26 de mayo, que regula la ordenación y el desarrollo de la formación profesional en el sistema educativo de la Comunidad Foral de Navarra.

El desarrollo experimentado por la Formación Profesional en la última década ha conducido a un escenario en el que, entre otros retos planteados, se encuentra la creciente participación del sector productivo y de servicios y de sus profesionales en la formación de los ciclos formativos, el desarrollo de diferentes modalidades de oferta, que afectan a personas que continúan su formación académica y a personas adultas, con sus correspondientes necesidades y requerimientos pedagógicos y organizativos. En el actual escenario, un quince por ciento del alumnado que cursa ciclos de grado medio y superior lo está realizando en ofertas flexibilizadoras dirigidas a personas adultas; lo que ha motivado también un incremento de solicitudes de autorización de centros para impartir la modalidad a distancia y cuyo procedimiento de autorización es preciso desarrollar. Por otro lado, se ha producido un desarrollo normativo de los Cursos de especialización de Formación Profesional y se ha publicado el Real Decreto 62/2022, de 25 de enero, de flexibilización de los requisitos exigibles para

## Justifikazio memoria.

### a) Txosten – Proposamena.

Hezkuntza Departamentuak proposatzen du Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sisteman lanbide-heziketaren antolamendua eta garapena arautzen duen maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretua aldatzea.

Lanbide Heziketak azken hamarkadan izan duen garapenaren ondorioz, planteatutako beste erronka batzuen artean, honako hauek daude: produkzio-sektoreak, zerbitzu-sektoreak eta sektore horretako profesionalek gero eta parte-hartze handiagoa izatea heziketa-zikloen prestakuntzan, eta eskaintza-modalitate desberdinak garatzea, prestakuntza akademikoa jarraitzen duten pertsonei eta helduei eragiten dietenak, dagozkien premia eta eskakizun pedagogiko eta antolamenduzkoekin. Egungo egoeran, erdi- eta goi-mailako zikloak egiten ari diren ikasleen ehuneko hamabost helduentzako eskaintza malguetan ari da egiten; hori dela eta, ikastetxe gehiagok eskatu dute urrutiko modalitatea irakasteko baimena, eta baimen-prozedura garatu beharra dago. Bestalde, Lanbide Heziketako espezializazio-ikastaroen arau-garapena egin da, eta urtarrilaren 25eko 62/2022 Errege Dekretua argitaratu da (62/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, zeinaren bidez malgutu egiten baitira profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera

**Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional**
**Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzua**
Santo Domingo 8 - 31001 Pamplona/Iruña
sfpeduca@navarra.es
Tel. 848 42 65 91

impartir ofertas de formación profesional conducentes a la obtención de certificados de profesionalidad, así como de la oferta de formación profesional en centros del sistema educativo y de formación profesional para el empleo, con una nueva concepción de la oferta modular parcial inferior al módulo profesional.

El Decreto Foral 54/2008, de 26 de mayo, establece en el capítulo VI las líneas estratégicas para las enseñanzas de Formación Profesional, que constituyen un factor de proyección de la Formación Profesional de Navarra al futuro. En relación con esta proyección, entre las medidas para promover la igualdad de género en el ámbito de la educación reguladas en el capítulo II del Título IV de la Ley Foral 17/2019, de 14 de abril, de igualdad entre mujeres y hombres, las referidas en el artículo 35 afectan directamente a la Formación Profesional. Por ello, en cumplimiento del mandato de la Ley Foral 17/2019, de 14 de abril, es preciso introducir la línea estratégica de promoción de la igualdad de género en el ámbito de las enseñanzas de Formación Profesional.

Para ello, al objeto de dar respuesta a los elementos planteados, es preciso elaborar un decreto foral que modifique el mencionado Decreto Foral 54/2008, de 26 de mayo.

bideratutako lanbide-heziketako eskaintzak emateko eska daitezkeen baldintzak, bai eta hezkuntza-sistemako eta enplegurako lanbide-heziketako zentroetako lanbide-heziketako eskaintza ere), lanbide-modulua baino beheragoko eskaintza modular partzialaren kontzepzio berri batekin.

Maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretuak VI. kapituluan ezartzen ditu Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako ildo estrategikoak, Nafarroako Lanbide Heziketaren etorkizunerako proiekzio-faktore baitira. Proiekzio horri dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako apirilaren 14ko 17/2019 Foru Legearen IV. tituluko II. kapituluan arautakotako hezkuntzaren arloan genero-berdintasuna sustatzeko neurrien artean, 35. artikuluan aipatutakoek zuzenean eragiten diote Lanbide Heziketari. Horregatik, apirilaren 14ko 17/2019 Foru Legearen agindua betez, beharrezkoa da genero-berdintasuna sustatzeko ildo estrategikoa sartzea Lanbide Heziketako irakaskuntzen eremuan.

Horretarako, planteatutako elementuei erantzuteko, maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretua aldatuko duen foru dekretu bat egin behar da.

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

**Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional**
**Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzua**
Santo Domingo 8 - 31001 Pamplona/Iruña
sfpeduca@navarra.es
Tel. 848 42 65 91

## b) Audiencia y Participación.

Mediante la Orden Foral 84/2020, de 30 de octubre, del Consejero de Educación, se inició el procedimiento para la elaboración del decreto foral que modifique el Decreto Foral 54/2008, de 26 de mayo, regulador de la ordenación y desarrollo de la formación profesional del sistema educativo en la Comunidad Foral de Navarra, y posteriormente se llevó a cabo el proceso de consulta pública previa. Todo ello, ha sido realizado de conformidad con lo establecido en el artículo 133 de la Ley Foral 11/2019, de 11 de marzo, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y del Sector Público institucional Foral, que determina que, con carácter previo a la elaboración de un anteproyecto de ley o proyecto de reglamento, podrá promoverse una consulta pública, a través del Portal del Gobierno Abierto de Navarra, en la que se recabará la opinión de la ciudadanía. Tras el proceso de consulta pública previa se elaboró el correspondiente informe.

Finalmente, el proyecto de decreto foral que modifica el Decreto Foral 54/2008, de 26 de mayo, regulador de la ordenación y desarrollo de la formación profesional del sistema educativo en Navarra, se somete a información pública, entre los días 27 de febrero y 20 de marzo de 2023, mediante el espacio habilitado de aportaciones, para que las ciudadanas y ciudadanos puedan expresar observaciones y opiniones.

## b) Entzunaldia eta parte-hartzea.

Hezkuntzako sailburuaren urriaren 30eko 84/2020 Foru Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Nafarroako Foru Komunitatean Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendua eta garapena arautzen duen maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretua aldatzen duen foru-dekretua egiteko prozedurari, eta, ondoren, aurretiazko kontsulta publikoaren prozesua gauzatu zen. Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Foru Sektore Publiko Instituzionalaren martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluan ezarritakoaren arabera egin da. Artikulu horren arabera, lege-aurreproiektu edo erregelamendu-proiektu bat egin aurretik, kontsulta publikoa sustatu ahalko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, herritarren iritzia jasotzeko. Aurretiazko kontsulta publikoko prozesuaren ondoren, dagokion txostena egin zen.

Azkenik, Nafarroan hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendua eta garapena arautzen duen maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretua aldatzen duen foru-dekretuaren proiektua jendaurrean jarriko da 2023ko otsailaren 27tik martxoaren 20ra bitartean, ekarpenak egiteko gaitutako gunearen bidez, herritarrek oharrak eta iritziak eman zitzaten.

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

**Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional**
**Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzua**
Santo Domingo 8 - 31001 Pamplona/Iruña
sfpeduca@navarra.es
Tel. 848 42 65 91

Las alegaciones recibidas en el periodo de exposición pública serán debidamente tenidas en cuenta al adoptar decisiones. Una vez examinadas las observaciones y opiniones expresadas por los ciudadanos y ciudadanas, se informará de las decisiones adoptadas y sobre la asunción o motivo de rechazo de las sugerencias o recomendaciones recibidas en un informe final que se publicará en el Portal de Gobierno Abierto de Navarra.

Jendaurreko erakustaldian jasotako alegazioak behar bezala hartuko dira kontuan erabakiak hartzerakoan. Herritarrek adierazitako oharrak eta iritziak aztertu ondoren, hartutako erabakien berri emango da, bai eta jasotako iradokizunak edo gomendioak onartu diren edo zergatik baztertu diren ere, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko den azken txosten batean.

Iruñean, 2023ko otsailaren 22an / Pamplona, 22 de febrero de 2023

Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzuko zuzendaria
La Directora del Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional

*La firma consta en el documento original*

Esther Monterrubio Ariznabarreta